

Nazioarteko merkataritzaren Behatokia

2024ko abendua



**BasqueTrade
& Investment**


Agencia Vasca de Internacionalización
Nazioartekotzeko Euskal Agentzia

GRUPO
spri
TALDEA



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
BASQUE GOVERNMENT





Sei hiletik behingo laburpena

Nazioarteko merkataritzaren maximo historikoa

2024an, 33 bilioi dolarrera iritsi zen mundu mailako merkataritza. Zerbitzuek izan zuten hazkunderik handiena, % 7koa, eta ondasunak izango ziren hurrengoak, % 2ko hazkundearekin.

EAEko esportazioak eta inportazioak moteldu egin dira

Esportazioek % 5eko jaitsiera metatu zuten irailera bitartean, eta inportazioak % 1 jaitsi ziren. Dena den, egoera hobetu egin zen hirugarren hiruhilekoan.

EB-Mercosur akordioa itxi dute

25 urte negoziatzen igaro ondoren, muga-zergen % 90 baino gehiago kentzea adostu dute EBk eta Mercosurrek, aldebiko merkataritza eta lehiakortasuna bultzatzeko.

Tentsio komertzialak EBren eta Txinaren artean, eta AEBren eta munduko gainerako herrialdeen artean

EBk Txinako ibilgailu elektrikoei ezarritako muga-zergek eta Trumpen politika protekzionistek tentsioa handitu dute, eta mundu mailako merkataritzari eragin dio horrek.

Garraioaren prezioak egonkortu egin dira

Garraio-kostuak % 26 murriztu dira irailetik, jatorria AEBn eta Txinan duten ibilbideetan edukiontzien prezioa jaitsi izanari esker.

Basque Trade & Investment cuenta con las autorizaciones necesarias para la elaboración del presente documento y sus anexos con información facilitada por los propietarios de las bases de datos utilizadas al efecto; así mismo, ha obtenido autorización para su difusión únicamente entre los destinatarios de los mismos.

Este documento y documentos anexos son confidenciales y dirigidos exclusivamente a los destinatarios de los mismos. Quedan terminantemente prohibidas la distribución, copia o difusión total o parcial de los mismos por ningún medio salvo a las personas autorizadas para su recepción dentro de la organización.

El destinatario se compromete a no manejar, usar, explotar o divulgar la información confidencial a ninguna persona o entidad por ningún motivo en contravención a lo dispuesto en esta cláusula, salvo que sea expresamente autorizado por escrito a hacerlo.

El uso no autorizado de la información contenida en el documento y sus anexos, así como el incumplimiento del deber de confidencialidad está sujeto a responsabilidades legales reservándose Basque Trade & Investment el derecho de reclamar el resarcimiento de los daños y perjuicios que le pudieran causar como consecuencia de la vulneración de sus deberes por parte del destinatario.

Basque Trade & Investmet-ek behar diren baimen guztiak ditu dokumentu hau eta bere eranskinak prestatzeko horretarako erabilitako datu-baseen jabeek emandako informazioarekin; era berean, baimena lortu du dokumentu hau eta bere eranskinak banatzeko bakar-bakarrik bere hartzaileen artean.

Dokumentu hau eta bere eranskinak isilpekoak dira, eta bere hartzaileei bakarrik zuzentzen zaizkie. Guztiz debekatuta dago dokumentu horiek ezein bitartekoren bidez banatu, kopiatu eta osorik edo partzialki zabaltzea, salbu eta antolakunde barruan jasotzeko baimena duten pertsonen.

Hartzaileak hitz ematen du ez duela isilpeko informazioa kudeatuko, erabiliko, ustatuko edo ezein pertsona edo erakunderi helaraziko ezelango arrazoiengatik klausula honek agintzen duenaren kontra, salbu eta idatziz ematen bazaio horretarako baimena.

Dokumentu honetan eta bere eranskinetan jasotako informazioa baimenik gabe erabiltzeak eta konfidentzialtasun betebeharra ez betetzeak ondorio legalak izango ditu, eta Basque Trade & Investment-ek eskubidea izango du kalte-ordainak eskatzeko hartzaileak bere betebeharrak urratzeagatik gerta litezkeen kalteengatik.

Aurkibidea

1. Nazioarteko merkataritzaren egoera
2. Euskadiko merkataritzaren egoera
3. Berritasun eta faktore garrantzitsuak
4. Lurraldearen etorkizuna





1

Nazioarteko
merkataritzaren
egoera

Nazioarteko merkataritzak 33 bilioi dolarreko maximo historikoa lortu zuen 2024an

Nazioarteko merkataritzaren egoera

MUNDUKO MERKATARITZAREN MAXIMO HISTORIKOA

Mundu mailako merkataritza **% 3,3 hazi zen 2024an**, eta **33 bilioi dolarrera** iritsi zen. Datu horrek hobetu egin zuen aurreko Behatokian aurkeztutako aurreikuspena, hazkundera % 2,5ekoa izatea espero baitzen. **Zerbitzuen merkataritza % 7 hazi da**, eta **ondasunen merkataritza % 2. Ekonomia garatuek izan zuten hazkunderik handiena hirugarren hiruhilekoan**. Aldiz, **garapen-bidean dauden ekonomietan % 1 murriztu** ziren inportazioak eta Hegoaldea-Hegoaldea merkataritza.

AUKERA BERRIAK


Hornidura kateko erronkak gorabehera, **informazioaren eta komunikazioaren teknologien sektoreak** % 13 eta % 14 **hazi** ziren, hurrenez hurren, **2024ko hirugarren hiruhilekoan**. Gainera, mundu mailako hazkunderaren aurreikuspenak egonkorak dira eta inflazioa baretu egin da. Hala, **2025a egokia izango da erresilientzia komertzialerako**. **2025eko** bilakaera, neurri handi batean, **Trumpek** muga-zergak aplikatzeari buruz hartzen dituen **erabakien** arabera izango da.

PRESIOAK SEKTORE TRADIZIONALENTZAT

Energiaren merkataritza % 2 murriztu zen 2024ko hirugarren hiruhilekoan, eta % 7 urtean zehar. Aldiz, **metalen merkataritzak % 3 egin zuen behera** hiruhilekoan zein urtean zehar. Bestetik, **automobilien merkataritza % 3 jaitsi zen hirugarren hiruhilekoan**, baina urtea **% 4ko hazkunde apalarekin** amaitzea espero da.

Ondasunen eta zerbitzuen mundu mailako merkataritza

Salerositako ondasunen eta zerbitzuen balioaren urteko igoera (2019 1. HH - 2024 4. HH)




*UNCTADStat. Nazioarteko merkataritzaren gaineko eguneraketa (2024ko abendua).



2

Euskadiko
merkataritzaren
egoera



Esportazioak



Esportazioak ez dira 2023an erregistratutako maila historikoetara iristen ari. Dena den, hirugarren hiruhilekoko joera positiboa da.

ESPORTAZIOEN BALIOA

2024ko lehenengo hiru hiruhilekoetan esportatutako bolumena % 5 erori da, 2023ko aldi berarekin alderatuta. **Hazkundera** izan duten eskualde bakarrak **Asia** eta **Ozeania** izan dira; batez ere, Myanmar eta Australian izandako hazkundeengatik.


PISU HANDIENA DUTEN PARTIDEN BILAKAERA

Partida	Pisua	2024ko 1HH-3HH VS 2023ko 1HH-3HH
Garraiorako materiala	% 26	-% 12
Metalak eta horien manufakturak	% 21	-% 7
Material elektrikoa	% 21	% 10
Produktu mineralak	% 7	% 30
Plastikoak eta kautxua	% 6	-% 20
Produktu kimikoak	% 3	-% 5
Elikadura-produktuak	% 3	-% 6

2024ko 2. SEIHILEKOKO BILAKAERA

Lehenengo sei hilekoan zehar, 2023ko aldi berean baino % 7 txikiagoa izan zen esportazioen bolumena. Aldiz, **2024ko hirugarren hiruhilekoan apur bat suspertu** dira EAEko esportazioak, eta % 0,7 egin dute gora. Aurreko aldiekiko **joera-aldaketa** bat erakusten du datu horrek.

EAEko esportazioen norakoak, herrialdearen eta eskualdearen arabera
Batez besteko aldakuntza %-tan (2024 1HH-3HH vs 2023 1HH-3HH), eskualde eta herrialdearen arabera



Hazkunde handiena duten 5 norakoak (hazkundera termino absolutuetan, esportatutako bolumenaren arabera)

1. Myanmar (+140 M€) 2. Kanada (+106 M€) 3. Frantzia (+105 M€) 4. Txina (+91 M€) 5. Erresuma B. (+89 M€)

Inportazioak



Inportazioen balantze globala apur bat jaitsi da aurten. Dena den, eskualde batzuetan hazkunde nabarmena erregistratu da.

ESPORTAZIOEN BALIOA

2024ko lehenengo bederatzi hilabeteetan % 1 inguru egin zuten behera inportazioek, 2023ko aldi berarekin alderatuta. Latinoamerikaren hazkunde handia nabarmentzen da, Nikaraguaren gisako herrialdeen hazkundearen ondorioz. Afrikan, Kamerungo eta Kenyako inportazioak nabarmentzen dira.

PISU HANDIENA DUTEN PARTIDEN BILAKAERA


Partida	PISUA	2024ko 1HH-3HH VS 2023ko 1HH-3HH
Produktu mineralak	% 28	% 4
Metalak eta horien manufakturak	% 20.	% 0
Material elektrikoa	% 17	-% 9
Garraiorako materiala	% 8	% 6
Produktu kimikoak	% 7	-% 0
Plastikoak eta kautxua	% 4	-% 11
Papera eta haren manufakturak	% 3	% 26

2024ko 2. SEIHILEKOKO BILAKAERA

Esportazioen bilakaeraren antzekoa izan dute inportazioek. Lehenengo seihiilekoan, 2023ko aldi berean baino % 3 txikiagoa zen bolumena. Aldiz, inportazioen % 2,64ko hazkundearekin hasi zen bigarren seihiilekoa.

EAEko inportazioen jatorria, herrialdearen eta eskualdearen arabera

Batez besteko aldakuntza %-tan (2024 1HH-3HH vs 2023 1HH-3HH), eskualde eta herrialdearen arabera




Hazkunde handiena duten 5 norakoak (hazkunde termino absolutuetan, inportatutako bolumenaren arabera)

1. Brasil (+297 M€)
2. Venezuela (+271 M€)
3. Saudi Arabia (+96 M€)
4. Arabiar EB (+96 M€)
5. Nigeria (+87 M€)


3

Berritasun eta faktore
garrantzitsuak



3.1


Merkataritza-akordioak



Merkataritza-akordioak

- 1 Nazioarteko merkataritza
- 2 Euskadiko merkataritza
- 3 Berritasun eta faktore garrantzitsuak
- 4 Lurraldearen etorkizuna

EBren jarduera diplomatikoak oso bizia izaten jarraitzen du. Potentzia handiekiko mendekotasuna murriztea eta Afrikako herrialdeekin eta Mercosurrekin akordioak indartzea da jarduera horren helburua.



EBren azkenaldiko akordioak

EB-MERCOSUR MERKATARITZA AKORDIOA



25 urte negoziatzen igaro ondoren, merkataritza-akordio historikoa lortu dute EBk eta Mercosurrek. Itunaren ondorioz, **Mercosurretik EBra esportatzen diren produktuen muga-zergen % 91** eta **aurkako noranzkoko muga-zergen % 92** kentzea aurreikusten da. Dena den, ituna berrestean oztopo handiak topatu dituzte ingurumen arauak betetzearekin eta nekazaritzako sektore espezifiko batzuk babestearekin lotuta. **Frantzia, Italia eta Polonia dira itunaren aurkari handienak.**

EB-TXILE MERKATARITZA AKORDIOA



Orain dela gutxi berretsi dute, eta ezarpen fasean dago. **EBri Esparru Akordio Aurreratu (AMA, gaztelaniazko siglengatik)** bat ematea hausnartzen ari da Txile, **lehentasunezko prezioekin**, litioaren eta kobreaken gisako mineral giltzarrietarako.

EB-ZB MERKATARITZA LIBREKO AKORDIOA



2024ko maiatzean sartu zen indarrean. Lehen ondorioen artean, **nekazaritzako muga-zergak murriztu** dira, eta **teknologia berdearen arloko lankidetzak indartu** da.

EBk eta Mercosurrek akordio bat lortu dute, 25 urteko negoziaketen ondoren. Zeelanda Berriarekin eta Txilerekin egindako akordioak martxan jarri dira

Akordioen gaineko etorkizuneko aurreikuspenak
2024ko azaroko egoera

EB-TXILE

Akordioak EBren segurtasun energetikoa sendotzea espero da, Txile bazkide estrategiko gisa kokatuta. Dena den, AMAk erronkak ekar lekitzkieke Txileko ETE-ei.

EB-MERCOSUR

Akordio honen ondorioz datorren hamarkadan alde biko merkataritza 100.000 milioi euro baino gehiago haztea espero da. Mercosurrek etekina atera liezaioke nekazaritzako produktuak eskuratzeko Europako merkatuetara sartu ahal izateari, eta EBk lehiakortasuna irabaziko luke sektore industrialetan eta zerbitzu-sektoreetan. Muga-zergetan urtean 4.000 milioi € aurreztu ahal izango dituzte Europako enpresek, akordioari esker.

EB-ZEELANDA BERRIA

Akordioaren eraginez, bi herrialdeen arteko alde biko merkataritza % 30 handituko dela kalkulatzen da; urtean 140 milioi € aurrezteko ahalbidetuko luke horrek.

EGOERA

- Berretsita
- - - Berresteko zain

Merkataritza-akordioak

1

Nazioarteko merkataritza

2

Euskadiko merkataritza

3

Berritasun eta faktore garrantzitsuak

4

Lurraldearen etorkizuna

Negoiazio-prozesuan dauden EBren akordioak

EB-INDIA MERKATARITZA LIBREKO AKORDIOA



Azaroan zehar, **Europako lider nagusiak Indiara bisitak** egiten ari dira, Merkataritza Libreko Akordioa sustatzeko. Alemaniak eta Italiak, esaterako, merkataritza arloko akordio oso garrantzitsuak sinatu dituzte.

EB-MEXIKO ARTEKO MERKATU LIBREKO ITUNA BERRITZEA



Ituna berritzeke dago 2018az geroztik. **Fase aurreratuan dago, eta klausula batzuk zehaztea baino ez da falta**

EB-TXINA ARTEKO AKORDIOA, MUGA ZERGEN GAINEAN



EBk **Txinako ibilgailu elektrikoei behin betiko muga-zergak ezarri** ondoren, **EBrekin akordio** batera iristen saiatzen ari da herrialde txinatarra, urrian ezarritako muga-zerga gehigarriak murrizteko. Txinako hedabideen arabera, negoziaketetan ari dira, **tentsioak areagotzea saihesteko** eta merkatu orekatuagoa lortzeko.

Aurrera egin da Mexiko eta Indiarekiko negoziazioetan. Txinako hedabideen arabera, EB-Txina arteko merkataritza-gerra saihesteko negoziazioak ari dira egiten

Akordioen gaineko etorkizuneko aurreikuspenak 2024ko azaroko egoera

EB-MEXIKO

Mexikon, gobernu berria iristen denean, Ituna modernizatuko da, bi aldeentzat mesedegarriak diren baldintzetan.

EB-TXINA

Negoziaketen aurrerapenari buruzko informazioa kontraesankorra da: hedabide txinatarren arabera, dagoeneko lortu dute adostasun teknikoa; aldiz, iturri europarren arabera, EBk ez du itunik espero epe laburrean.

EB-INDIA

Negoziaketek fruituak eman ditzaten, *"Made in India"* politiketatik eratorritako oztopo komertzialak murrizteko eskatzen du EBk.

Itxarote fasean dauden EBren akordioak

EB-ASEAN MERKATARITZA AKORDIOA



EBk areagotu egin ditu Filipinen eta Vietnamen gisako herrialdeekin dituen harreman diplomatikoak. Gainera, orain dela gutxi, hondamendien aurreko lankidetzak indartzeko akordioak ezagutarazi dituzte.

EB-GLK MERKATARITZA LIBREKO AKORDIOA



Urrian egin zuten EBren eta Golkoko Lankidetzak Kontseiluaren (GLK) arteko lehen goi-bilera, elkarrengana hurbiltzeko eta negoziazio formalei hasiera emateko.

EB-AFRIKA MERKATARITZA AKORDIOA



Muga-zergak murrizteko akordioak ezartzen ari dira dagoeneko, eta aurrerapausoak ematen ari dira hainbat tresnarekin, hala nola *African Trade Observatory* izenekoarekin. Tresna horrek, gainera, Afrikako herrialdeen arteko merkataritzari ere lagunduko dio.

Asian eta Afrikan akordio garrantzitsuak formalizatzeko negoziatio formalak hasteko saiakeretan jarraitzen du EBk

Akordioen gaineko etorkizuneko aurreikuspenak 2024ko abenduko egoera

EB-AFRIKA

Eskualde horretan Elkartze Ekonomikorako Akordioak zabaltzen saiatuko da Europar Batasuna; dagoeneko hainbat herrialdetan ezarri dituzte, hala nola Boli Kostan.

EB-ASEAN


ASEAN (Hego-Ekialdeko Asiako Nazioen Elkarte) merkatu giltzarria da EBrentzat, eta hasierako kontaktuak negoziatio formal bilaka litezke 2025ean.

EB-GLK

GLK herrialdeen bigarren bazkide komertzial handiena da EB. Azken aurkezpenen arabera, merkataritza-akordio bat lortzera bideratutako eztabaidak bultzatzen saiatuko dira.

3.2

Merkataritzako oztopoak



Merkataritzako oztopoak

1

Nazioarteko merkataritza

2

Euskadiko merkataritza

3

Berritasun eta faktore garrantzitsuak


4

Lurraldearen etorkizuna




Inportazioen arlokoak

EBko merkataritzako murrizketa berriek garestitu egin dituzte ibilgailu elektriko txinatarrak, eta jasangarritasun, segurtasun eta giza eskubideekin lotutako estandarrak indartu dituzte



Txinako ibilgailu elektrikoen inportazioaren murrizketak



EGUNGO EGOERA



Txinatik inportatutako ibilgailu elektrikoei % 45era arteko muga-zerga gehigarriak ezarri zizkien EBk 2024ko urrian. EB kezkatuta dago, Txinako Gobernuak dirulaguntzak ematen dizkielako bertako ibilgailu elektrikoen fabrikatzaileei eta, ondorioz, europar merkatuan askoz ere prezio baxuagoan saltzen dituztelako ibilgailu horiek. Hain zuzen ere, kezka horri erantzuteko ezarri dira muga-zergak.

2024ko maiatzaz geroztik, **bortxazko lanarekin fabrikatutako produktuak inportatzea eta merkaturatzea debekatzen** duen araudi bat ezarria du Europar Batasunak. Ondasunen hornidurakatea ikertzea ahalbidetzen du araudiak, eta, ondasunak ekoizteko bortxazko lana erabili dela frogatuz gero, merkatutik erretiratu behar dira horiek.

2024ko ekainean **Inportazioen Kontrol Sistemaren (ICS2) hirugarren fasea** ezarri zuen EBk, behin betiko. Sistema horrek segurtasun-adierazpen gehigarriak eskatzen ditu inportatutako ondasunen kasuan, aduanetako segurtasuna indartzeko helburuz.

EZARPENAREN ONDORIOAK



Politika horren ondorioz, **ibilgailu elektrikoak garestitu egin litezke European**, prezioen lehiakortasuna murriztearen eraginez. Neurri horri esker Europako fabrikatzaileek euren **ekoizpena azeleratzea eta euren lehiakortasuna hobetzea** espero da. Dena den, ibilgailu elektrikoen eskuragarritasuna geldotu egin liteke European.

Batez ere, EBk eskatzen dituen **giza eskubideen estandarrak betetzen ez dituzten lan praktikak** dituzten herrialdeei eta enpresei eragiten die neurri honek. Dena den, ekonomikoki EBren mendekoak diren **herrialde esportatzaile jakin batzuekin gatazka komertzialak** sortzeko arriskua dute murrizketa horiek.

EBra esportatzen dutenek **sistema eta prozesu logistikoak eguneratzeko** inbertsioa egin behar dute, adierazpen-baldintza berri horiek betetzeko. Horrek kostu handiagoak eragingo ditu, araudia betetzeko; eta **ikuskapen gehigarriak behar dituzten produktuek atzerapenak** izan ditzakete.

Merkataritzako oztopoak

- 1 Nazioarteko merkataritza
- 2 Euskadiko merkataritza
- 3 Berritasun eta faktore garrantzitsuak
- 4 Lurraldearen etorkizuna



Inportazioen arlokoak

Ibilgailu elektriko txinatarrei muga-zergak ezarri izanaren erabakia berretsi du Europako Batzordeak



Zer gertatu da?

- **Muga-zergen ezarpena.** Ibilgailu elektriko txinatarrei % 15 eta % 45 arteko muga-zergak ezartzea erabaki du EBk. Produktu txinatarrek estatuaren dirulaguntza desleialak jaso dituztela uste da, eta pertzepzio horri erantzuten dio neurriak. Muga-zerga berriek atzerriko markei ere eragiten diete (adibidez, Teslari), horien modeloak Txinan fabrikatzen badituzte.
- **Txinaren erantzuna.** EBk auto elektriko txinatarrei ezarritako muga-zergak iraunkorrak izango zirela iragarri zuenean, Pekinek % 30,6 eta % 39 arteko muga-zergak jarri zizkien Europako brandy marka batzuei. Neurri horrek, era berean, barne hartzen ditu Europako beste luxuzko produktu batzuentzako marjina handiagoak ere.

EBren estrategia

- **Lehiakortasunaren defentsa.** Bidezko lehia bermatzeko muga-zergak beharrezkoak direla arrazoitu du EBk. Txinarekin dituen merkataritza-harremanak orekatu nahi ditu Bruselak, eta teknologia berdearen tokiko ekoizpena sustatu nahi du.
- **Autonomia estrategikoaren sustapena.** Mendekotasun energetikoa murrizteko helburuz eta deskarbonizazio-ildoarekin bat etorriz, material giltzarrietarako sarbidea dibertsifikatu nahi du EBk, eta energia berriztagarrien, baterien eta teknologia berdearen arloko gaitasun industrialak indartu nahi ditu.
- **Barneko babesa merkatuari.** Estatu kideak Europan bertan fabrikatutako ibilgailu elektrikoak ari dira sustatzen, dirulaguntzen bidez eta egitura lehiakorragoak garatzearen bidez. Dena den, erronka burokratikoak eta finantzarioak espero dira.

Etorkizuneko errepresalia posibleak

1. Nazioarteko erantzun legala

Txina **MMEra jotzea ari da aztertzen, EBk ezarritako muga-zergek nazioarteko merkataritza urratzen dutela salatze**ko, EBk jarritako salaketari erantzute aldera.

2. Europako produktuei jarritako muga-zergak

Txinak **muga-zerga altuagoak jar lekizkieke Europatik esportatutako ibilgailuei**. Horrek **bereziki eragingo liekete Alemaniaren** gisako herrialdeei. Izan ere, bertako fabrikatzaileak, neurri handi batean, merkatu txinatarraren mende daude.

3. Lehengaiak eskuratzeko mugak

Txinak **mugatu egin lezake giltzarriak diren oinarritzko metalen eskuragarritasuna**, hala nola kobarena edo nikelarena. Horiek ezinbestekoak dira bateriak fabrikatzeko, eta Txinak horien gaineko **kontrol nabarmena du mundu mailan**.

4. Merkatu txinatarren dibertsifikazioa

Afrikaren edo Latinoamerikaren gisako lurraldeetan merkatu berriak irekitzeko estrategia azkartu lezake Txinako Gobernuak, Europako merkatuarekiko mendekotasuna murrizteko eta muga-zergen eragina arintzeko.

Merkataritzako oztopoak

1

Nazioarteko
merkataritza

2

Euskadiko
merkataritza

3

Berritasun eta
faktore
garrantzitsuak

4

Lurraldearen
etorkizuna



Esportazioen arlokoak

Trumpen garaipenaren eta Txinarekiko tentsio diplomatikoen gorakadaren ondorioz, handitu egin litezke Europako produktuei jarritako muga-zergak




Trumpen proposamena, Europako esportazioei % 20ko muga-zerga ezartzeko



Txinaren muga-zergak Europako luxuzko produktuei



Indiaren errepresaliak mugazergen bidez, altzairuari ezarritako mugengatik



EGUNGO EGOERA



2024ko azaroan, berriz hautatua izan ondoren, **AEBra egindako esportazio guztiei % 20ko muga-zerga** ezartzea proposatu zuen Donald Trumpek. Horrek inpaktu nabarmena izango luke Europaren esportazioetan. Defizit komertziala murriztea eta AEBko industria lehenestea da neurriaren helburua.

Txinak **Europako produktu jakin batzuetara hedatu ditu muga-zergak**, hala nola brandya eta luxuzko beste produktu batzuk. Muga-zerga horiek, neurri batean, EBk ibilgailu elektrikoei jarritako zigorren eta neurrien erantzuna dira, eta **Europako produktuek Txinako merkatuan duten lehiakortasuna murrizteko** diseinatuta daude.

Merkataritza arloko tentsioak handitzen ari diren honetan, Indiak **EBren aurkako errepresalia-neurriak** hartzeko asmoa iragarri du, **altzairuaren inportazioak babesteko muga-zergak handitu izanagatik**. Neurri horiek 2018an ezarri ziren, eta 2024an iraungitzea aurreikusten zen. Dena den, **2026ko ekainera arte luzatu** dituzte.

EZARPENAREN ONDORIOAK



Muga-zerga horrek **handitu egingo lituzte Europako produktuak AEBko merkatura sartzearen kostuak**, eta horrek **sektore giltzarriei eragingo lieke, hala nola automobilgintzari eta makineria astunari**. Baliteke Europako enpresen lehiakortasuna murriztea. Alemaniako ekonomia izango litzateke kaltetuena.

2024ko azaroaren amaieran, **EBk formalki inpugnatu zituen Txinak iragarritako brandy europarraren gaineko muga-zergak, MMEn aurrean**. Egoera horrek EBren eta Txinaren arteko tentsio diplomatikoak areagotu litzake, eta **Europako zein Txinako beste produktu batzuei muga-zerga gehigarriak aplikatzeko arriskua** handitu lezake.

EBko merkataritza-produktu hautatu batzuen gaineko kontzesioak etetea da Indiaren plana, eta inportazio horien gaineko muga-zergak handitzea. **Proposatuko dituzten igoerak, jasandako galera komertzialekiko** (1.000 milioi dolar) **proportzionalak** izango direla jakinarazi zuen Indiak. Egoera horrek handitu egingo ditu EBren eta Indiaren arteko tentsio komertzialak, eta konplikatu egin litzake Merkataritza Libreko Itunaren gainean martxan diren negoziaketak.

Merkataritzako oztopoak

- 1 Nazioarteko merkataritza
- 2 Euskadiko merkataritza
- 3 Berritasun eta faktore garrantzitsuak
- 4 Lurraldearen etorkizuna



Esportazioen arlokoak

Europako produktuei % 20ra arteko muga-zergak ezartzeko mehatxua egin du Trumpek



Zer gertatu da?

- **Eraso berria.** Berriz hautatu zutenean, EBko produktuei % 20ra arteko muga-zergak jarriko zizkiela iragarri zuen Trumpek, haren politika protekzionistarekin bat etorritz. Horrek ziurgabetasuna eragiten du Europako esportazioen arloan; bereziki, automobilgintzaren, altzairuaren eta aluminioaren sektoreetan.
- **Kezka EBn.** Alemaniako ekonomia bereziki mehatxatuta dago, izaera esportatzailea duelako. Bundesbankek ohartarazi zuenez, muga-zerga horiek % 1 murriztu lezakete BPGa, eta atzeraldia eragin lezakete.

AEBren estrategia

- **Barneko berrindustrializazioa.** Trumpek atzerriko inbertsioa erakarri nahi du, eta manufaktura nazionala indartu. Horretarako, Asiatik eta Europatik AEBra eraman nahi du ekoizpena. Estrategia horrek barne hartzen du AEBko enpresei pizgarriak ematea, eta presio komertziala egiteko neurri gehigarriak hartzea.
- **Negoziaketa, indarrez.** EBren gisako bazkide estrategikoei muga-zergak ezartzearen helburua aldebiko akordio onuragarriagoak behartzea da; hau da, AEBren lehentasunekin lerrokatuta dauden akordioak, *"America First"* lelopean.
- **Hautesleen oinarriari babesa.** Langileak babesteari eta industria tradizionalak biziberritzeari buruzko narratiba populista indartzen du politika horrek. Hori oinarritzkoa da Mendebalde Ertaineko eta hegoaldeko sektoreen babesa izaten jarraitzeko.

Ondorio potentzialak

1. EBren erantzun komertziala


- Kontraneurriak hartzea; esaterako, **AEBko produktu enblematikoei muga-zergak** jartzea (adibidez, Bourbon whiskia eta Harley Davidson motorrak).
- **EBk azkartu egin lezake CBAMen** (Karbonoaren Mugak Doitzeko Mekanismoa) **ezarpena**, eta horrek eragina izango luke **altzairuaren eta aluminioaren** sektoreetan.
- EBk Asiako, Latinoamerikako eta Afrikako **merkatu berriekin** dituen **negoziaketak azkartzea, merkatuak dibertsifikatzeko** helburuz.

2. Desadostasun eremu berriak

- **Altzairua eta aluminioa:** AEBk muga-zergak ezarri diezazkieke altzairuari (% 25) eta aluminioari (% 10), CBAM-i erantzuteko, 2025ean trantsizio-aldia amaitu ondoren.
- **Mineral kritikoak:** Trumpek politika protekzionistak mantenduko ditu, baina ez dakigu IRaren esparruaren barruan izango den ala ez. Akordiorik gabe, Europako enpresak IRaren onuretatik kanpo geratuko lirateke, eta horrek ibilgailuen esportazioak kaltetuko lituzke.
- **Tasa digitalak:** AEBk EBren araudi digitalari egindako kritikek kontraneurriak ekar litzakete, eta horrek garestitu egingo lituzke zerbitzu digitalak Europan.

3.3

Kate logistikoak



Munduko eta estatuko portu nagusiek atzerapen handiak izaten jarraitzen dute

Portuak, edukiontzien trafikoaren arabera (2024ko azaroa: indizea, TEUetan eta egunetan)

Portua	Inportazioak, TEUetan	Esportazioak, TEUetan	Egonaldi-denbora (inp.)	Egonaldi-denbora (esp.)	Atzerapenen % (azken 7 egunak)
Singapur	1.584k	1.727k	4,8	3,9	93
Shanghai	397k	1.138k	2,1	4,2	97
Busan	598k	769k	2,8	7,2	84
Ningbo	169k	999k	2,8	3,6	91
Jebel Ali	612k	483k	0,6	1,7	72
Rotterdam	639k	366k	0,7	7,7	100
Tanjung Pelepas	500k	535k	7,2	-	-
Anberes	405k	493k	4,8	4,9	97
Qingdao	165k	613k	0,7	3,3	67
Kaohsiung	387k	430k	0,5	6,0	85

Estatuko portuak, edukiontzien trafikoaren arabera (2024ko azaroa: indizea TEUetan eta egunetan)

Portua	Inportazioak, TEUetan	Esportazioak, TEUetan	Egonaldi-denbora (inp.)	Egonaldi-denbora (esp.)	Atzerapenen % (azken 7 egunak)
Algeciras	223k	235k	0,3	5,9	100
Valentzia	235k	213k	5	5,3	82
Bartzelona	105k	132k	3,2	3,2	98
Las Palmas	42k	38k	5,5	-	-
Bilbo	11k	23k	-	8	

Zer ari da gertatzen mundu mailan?

- **Etengabeko atzerapenak eta saturazioa.** Munduko portu nagusiek ahaleginak egin dituzte digitalizatzeko eta eragiketa logistikoak modernizatzeko, baina, orokorrean, atzerapenak etengabeak dira portu gehienetan. Hain zuzen ere, Rotterdameko portuaren gisakoetan, atzerapenek eragiketen % 100ari eragiten diote. Era berean, nabarmentzekoa da esportazioek portuan egiten duten egonaldia oso luzea izaten dela; Rotterdamen eta Busango portuan, astebetetik gorakoa.
- **Gatazka geopolitikoek portuen arintasunari eragiten diote.** Datu horiek erakusten dutenez, egitura batzuk guztiz saturatuta daude puntu kritikoetan dauden botila-lepoak direla eta, mundu mailako gatazka geopolitikoaren ondorioz. Esaterako, Errusiaren eta Ukrainaren arteko gatazka, zeinak Itsaso Beltzari eragiten dion; edo Txinaren eskariak, Hegoaldeko Itsasoko subiranotasuna dela eta, Malakako itsasartetik oso gertu.

Zer ari da gertatzen estatu mailan?

- **Estatuko portuak ere saturatuta daude.** Esaterako, Algeciraseko eta Bartzelonako portuetan atzerapenak dituzte ia eragiketa guztietan. Bilboko eta Valentziako portuek atzerapen txikiagoa dute, baina esportazioen egonaldia luzeagoa da; Bilbon, zortzi egunera heltzen da egonaldia.

Garraioaren prezioek jaisten jarraitzen dute merkataritza-ibilbide nagusietan

Edukiontzien garraioaren prezioen bilakaera (indizea eurotan)

Ibilbidea	2024/09/06	2024/11/06	2024/12/06	Hileko aldaketa	Hiruhilekoko aldaketa
Txina - AEBko Mendebaldeko Kostaldea	6.155 €	4.825 €	3.694 €	-% 23 ▼	-% 40 ▼
AEBko Mendebaldeko Kostaldea - Txina	425 €	335 €	316 €	-% 6 ▼	-% 26 ▼
Txina - AEBko Ekialdeko Kostaldea	8.403 €	5.065 €	4.861 €	-% 4 ▼	-% 42 ▼
AEBko Ekialdeko Kostaldea - Txina	412 €	440 €	406 €	-% 8 ▲	-% 1 ▼
Txina - Europako iparraldea	5.875 €	4.164 €	5.030 €	% 21 ▲	-% 14 ▲
Europako iparraldea - Txina	527 €	429 €	437 €	% 2 ▲	-% 17 ▼
Txina - Mediterraneo	5.267 €	3.984 €	5.569 €	% 40 ▲	% 6 ▼
Mediterraneo - Txina	525 €	397 €	415 €	% 5 ▲	-% 21 ▼
AEBko Ekialdeko Kostaldea - Europako iparraldea	729 €	471 €	527 €	% 12 ▼	-% 28 ▲
Europako iparraldea - AEBko Ekialdeko Kostaldea	1.731 €	2.417 €	2.385 €	-% 1 ▲	% 38 ▲
Europa - Hego Amerikako Ekialdeko Kostaldea	698 €	738 €	754 €	% 2 ▲	% 8 ▲
Hego Amerikako Ekialdeko Kostaldea - Europa	2.209 €	2.417 €	2.417 €	% 0 ▲	% 9 ▼
Globala	4.531 €	3.302 €	3.357 €	% 2	-% 26

Legenda

Suezko ibilbidea

Pazifikoko ibilbidea

Atlantikoko ibilbidea

Zer bilakaera izaten ari dira prezioak?

- Garraioaren prezioak egonkortzen ari dira.** Aurreko Behatokian ikusitako joerari jarraiki, edukiontzien prezioek jaisten jarraitzen dute, eta behera egin dute 2023ko bigarren erdian lortutako maximo historikoetatik. Beherakada hori bereziki nabarmena da Suezko kanaletik igarotzen diren ibilbideetan, baina oraindik ere urrun daude iazko igoeraren aurreko mailatik. Dena den, nabarmentzekoa da azaroan % 2 egin zuela gora mundu mailan, aurreko hilabetearekin alderatuta. Prezioen igoera hori bereziki nabarmena izan zen Pazifikoko eta Atlantikoko ibilbideetan.
- Spot tarifen murrizketa ibilbide espezifikoetan.** Garraioaren prezioak % 26 jaitsi dira irailetik, azken hilabeteetako joerari jarraiki. Panamako kanalaren arintzeak eta Suezko kanaleko ibilbideko kostuak pixkanaka egonkortu izanak eragin du prezioen jaitsiera. Era berean, lotuta dago ibilbide batzuetan, hala nola Shanghai eta AEB artekoan, spot tarifak murriztu izanarekin. Tarifa horiek % 40 baino gehiago murriztu ziren, gehiegizko gaitasunak eta kontsumo-ereduen aldaketek eraginda.
- Behera egin du eskariaren gaineko presioak.** Itsaso Gorriko eta Suezko kanaleko tentsio geopolitikoaren ondorioz ibilbide luzeagoak erabili arren, badirudi erlaxatu egin dela eskariaren gaineko presioa; hala, ibilbide ziklikoetako tarifak jaitsi egin dira.

Merkantzien garraioan giltzarriak diren pasabide logistikoetako egoera


MERKANTZIEN GARRAIOAN GILTZARRIAK DIREN LEKUAK

 Pasabide kritikoak

 Beste pasabide garrantzitsu batzuk

PASABIDEETAKO ZIRKULAZIOAREN EGOERA

-  Zirkulazio normala
-  Zirkulazioa berreskuratzen ari da, orain dela gutxi etenaldi bat izan ondoren.
-  Zirkulazioa gainbeheran / tentsio geopolitikoekiko oso zaurgarria.



Panamako kanala



Panamako kanalak zirkulazio maila normala berreskuratu du, lehorte historikoa igaro ondoren. Neurriak hartuko dira gertakari horri errepika ez dadin.

Egungo egoera

- **Zirkulazioaren hazkundera.** Panamako kanalak suspertze-zantzuak erakutsi ditu 2024ko hirugarren eta laugarren hiruhilekoetan, historiako lehorte okerrenetako bat igaro ondoren; aldi horretan, egunean 22ra jaitsi zen zirkulazioa. Gaur egun, dagoeneko, zirkulazioa iritsi da xede-zifrara: 37.
- **Diru-sarrera handiagoak.** Urtearen lehen erdian zailtasunak izan arren, Panamako kanalak 4.986 milioi dolarreko diru-sarrerak izan zituen 2024ko zerga-urtean (2023ko urria-2024ko iraila). Horrek esan nahi du % 1 hazi dela aurreko alditik.

Duela gutxiko disrupzioak

- **Lehorte historikoa.** Kanalari erasan zion krisi klimatikoaren ondorioz, zirkulazioa nabarmen jaitsi zen. Egiaz, egoera partzialki leheneratu bada ere, oraindik ez da berreskuratu krisiaren aurreko zirkulazio maila.
- **Kostuen igoera globalean laguntzea.** Suezko kanaleko lehortearen eta Itsaso Gorriko gatazkaren ondorioz, igo egin dira pleiten tarifak eta bidalketa-kostuak. Dena den, UNCTADen datuen arabera, 2023ko urriaren eta 2024ko uztailaren artean Txinako Edukiontzien Indizea % 165 igo izanaren arrazoien artean, % 10 bakarrik dagokio kanalaren lehorteari, eta Itsaso Gorriko gatazkari dagokio gainerako % 155a.

Etorkizuneko aurreikuspenak

1. Aldaketa klimatikoaren inpaktua

Aldaketa klimatikoaren ondorioz, etorkizunean, **bigarren lehorte bat** izango den kezka dago. Horren aurrean, kanaleko agintaritzak plan bat diseinatu du, krisi klimatikoaren inpaktua kudeatzeko **bigarren gordailu** bat sortzeko.

2. Ibilbide alternatiboen garapena

Larrialdi-kasuetan itsasoko garraioaren ibilbide alternatibo gisa erabiltzeko, hainbat **alternatiba** ari dira aztertzen, hala nola **trenbideak garatzea**; esaterako, Mexikon.

3. 2025erako aurreikuspenak hobetu egin dira

Zirkulazioa eta diru-sarrerak hazi egingo direla aurreikusten da. Kalatu handiko 12.582 ontzi igaroko direla espero da, eta 5.220 milioi tona inguru garraiatuko dituztela. Diru-sarrera operatiboak, berriz, 5.624 milioi dolarrekoak izatea espero da (+% 4,7).

4. Etorkizuneko disrupzioen aurreko prestaketa

Ricaurte Vásquez kanalaren administratzaileak ohartarazi duenez, datozen hiruzpalau urteetan **lehorte luzearen antzeko baldintzak izan ditzakete berriz**, baina **hobeto prestatuta** egotea espero dute.

Suezko kanala



Itsaso Gorriko krisiak Suezko kanalari eragiten jarraitzen du. 2024an zehar 2.900 ontzik baino gehiagok aldatu dute ibilbidea

Egungo egoera

- **Zirkulazioaren beherakada drastikoa.** 2024ko hirugarren hiruhilekoan, Suezko kanaleko zirkulazioak urte arteko % 70eko jaitsiera izan du, NDFren kalkuluen arabera. 2023ko abenduaz geroztik, 2.900 ontzi inguruk aldatu dute ibilbidea, Suezko kanaletik ez igarotzeko; hala, 250 milioi tona merkantzia inguru desbideratu dituzte.
- **Ibilbide alternatiboen gainera inpaktua.** Esperantza Oneko lurmuturretik igarotzen diren ontzien kopurua 2024an % 60 hazi dela kalkulatzen da. Itsaso Gorriko krisia kanalean eta munduko itsasoko ibilbidetan izaten ari den eragin handia erakusten du horrek.

Duela gutxiko disrupzioak

- **Itsaso Gorriko krisia.** 2024ko erdialdetik, Itsaso Gorriko gatazka biziagotu egin da. Huthiek ontzi militarrek eta komertzialak eraso dituzte, droneak eta misilak erabilia. Orain arte, 90 itsasontziri baino gehiagori egin diete eraso. Nazioarteko indarrek itsasoko eragiketekin erantzun dute. Hala, hainbat mehatxu jaurti dituzte, eta itsas ibilbide estrategikoak ziurtatu dituzte. Eskualdeak puntu kritikoa izaten jarraitzen du, duen garrantzi komertzialagatik eta gero eta militarizatuago dagoelako.
- **Kostuen igoera globalean laguntzea.** Suezko kanalak garrantzi handia du nazioarteko merkataritzan; izan ere, mundu mailako itsasoko trafikoaren % 13 eta edukiontzien garraioaren % 30 kudeatzen du. Hori kontuan hartuta, Itsaso Gorriko krisiarekin lotzen da 2024an erregistratutako garraio-kostuen igoeraren % 94.

Etorkizuneko aurreikuspenak

1. Krisiaren iraupena

Itsaso Gorriko tentsioak hazi egin direla kontuan hartuta eta, bereziki, **Trump berriz aukeratu** ondoren, ez da oso gertagarria epe labur-ertainean kanaleko zirkulazioa gatazkaren aurreko mailara itzultzea.

2. Garraio-ahalmenaren gainera inpaktua

Afrikaren inguruko **ibilbide luzeenean** zehar nabigatu ahal izateko, bi edo hiru ontzi gehiago behar dira, eta horrek ahalmen-eskasia eragin du.

3. Prezioen eta horniduraren gainera inpaktua

Krisiak **hornidura-kate sentikorrenei eragiten** jarraitzea espero da, hala nola **automobilgintza-sektoreari eta elikagaien sektoreari**. Hala, egoera luzatzen bada, prezioak igo egingo dira kontsumitzaileentzat.

4. Ondorio ekonomikoak

Egiptoko ekonomiari bereziki eragingo lioke krisia luzatzeak. Izan ere, Suezko kanalari lotuta daude herrialdeko BPGaren % 2 inguru eta diru-sarreraren publikoen % 3,5.

Ormuzko itsasartea



Petrolioaren mundu mailako garraioan duen garrantzia berretsi du itsasartea. Hura ixtearekin mehatxu egin du Iranek. Horrek disrupzio larriak eragingo lituzke horniduran eta gordinaren prezioan

Egungo egoera

- **Petrolioaren trafikoa, inoiz baino maila altuagoan.** Ormuzko itsasarteak garrantzitsua izaten jarraitzen du petrolioaren mundu mailako merkataritzan. Izan ere, mundu mailan kontsumitzen den petrolioaren % 21 inguru igarotzen da bertako uretatik. 2024an, itsasartean zehar garraiatutako petrolioaren fluxua, batez beste, egunean 21 milioi upelekoa izan zen.
- **Gero eta tentsio geopolitiko handiagoa.** Iranen eta Israelen arteko harremanak puntu kritiko batera iritsi dira. Urriaz geroztik, areagotu egin dira bi herrialdeen arteko erasoak. Trump berriro hautatu izanak larriagotu egin lezake egoera, Irani zigor handiagoak jartzea eta Israeli babesa ematea proposatu baitu.

Duela gutxiko disrupzioak

- **Itsasoko gertakariak eta ontzien aurkako erasoak.** 2024ko apirilean gertatu ziren erasoen ondoren, ez da berriz gertatu ontzien aurkako zuzeneko erasorik. Dena den, gatazkaren hazkundeak eta Trump berriro hautatu izanak Iranen erantzun bat eragin dezake, hau da, eraso egin dezake.
- **Petrolioaren prezioen gainera inpaktua.** Urrian Ekialde Ertaineko gatazkak izandako hazkunde handiaren ondoren, agerian geratu zen petrolioaren prezioen eta gatazkaren arteko harreman estua. Adibidez, urriaren 1ean Iranek Israeli egindako erasoen ondoren, Brent upelaren prezioa % 4 hazi zen.

Etorkizuneko aurreikuspenak

1. Ormuzko itsasartearen itxiera posiblea

Presio-neurri gisa, Iran Ormuzko itsasartea ixten saiatuko den kezka dago. Ekintza horren ondorioz, **petrolioaren prezioak % 180 igo** litezkeela ohartarazi du Bank of Americaren analisiak.

2. Eskualdeko gatazkaren hazkundera

Iranen eta Israelen arteko **gatazka militar posible** batek, eskualdeko petrolioaren eta gasaren beste ekoizle batzuk tartean har ditzakeenak (adibidez, Saudi Arabia eta Arabiar Emirerri Batuak), **ondorio suntsitzaileak izan ditzake petrolioaren horniduran eta prezioan.**

3. Mundu mailako itsasoko garraioaren gainera inpaktua

Itsasarteko disrupzioek **ibilbide alternatiboak** aukeratzera behartu litzakete konpainiak; **esaterako, Esperantza Oneko lurmuturra.** Bidaia luzeagoak eta garestiagoak egitea eragingo luke horrek.

4. Nazioarteko erantzuna

Nazioarteko komunitateak (bereziki, **Estatu Batuak eta haren aliatuak**) **ontzien presentzia adierazgarria mantentzen du eskualdean**, nabigazio-askatasuna bermatzeko. Dena den, Iranen kontrako edozein ekintza militar zuzenek **are gatazka handiagoa eragin lezake.**



4

Lurraldearen etorkizuna

4.1

Europa



Europa

2024ko lehenengo hiru hiruhilekoetan murriztu egin dira mundu mailako inportazioak Europan. Altzairuarekin eta produktu mineralekin lotutako partidak murriztu dira gehien.

EAEko ESPORTAZIO PARTIDA NAGUSIEN INPORTAZIOAK					
PRODUKTUA*	BALIOA 2024 1HH-3HH (mila €)	2024 1HH-3HH VS 2023 1-3HH	PRODUKTUA	BALIOA 2024 1HH-3HH (mila €)	2024 1HH-3HH VS 2023 1-3HH
Guztira	2.914.027.768	-% 5,33	Aluminioa eta manufakturak	39.029.510	-% 7,51
Elikadura-produktuak	108.354.202	% 6,37	Erremintak eta tresnak	10.536.597	-% 1,99
Produktu mineralak	333.089.652	-% 15,22	Manufaktura metalikoak	12.862.314	-% 1,43
Produktu kimikoak	330.569.378	-% 2,93	Metala lantzeko makina- erremintak	5.374.659	-% 23,61
Kautxua eta manufakturak	32.388.853	-% 1,12	Beste makina mekaniko batzuk	335.783.361	-% 3,80
Pasta, papera eta horien manufakturak	46.602.952	-% 2,49	Makina elektrikoak	310.696.437	-% 9,47
Altzairu arruntezko barrak eta profilak	7.050.623	-% 17,40	Trenbideetarako ibilgailuak	5.288.867	-% 15,03
Altzairu herdoilgaitzezko eta aleatuzko barrak eta profilak	6.868.066	-% 20,07	Automobilak	167.480.680	-% 2,81
Hodiak eta osagarriak	10.112.887	-% 8,33	Merkantziak garraiatzeko ibilgailuak	25.517.453	-% 6,80
Burdinazko edo altzairuzko beste manufaktura batzuk	14.475.070	-% 5,23	Ibilgailuen zatiak eta osagarriak	75.018.459	-% 3,05

Legenda

Bilakaera positiboa (% 5<)

Garrantzirik gabeko bilakaera (-% 5 eta % 5 artean)

Bilakaera negatiboa. (-% 5>)

Bilakaera positiboak


- Elikadura-produktuen inportazioak % 6,37 hazi dira 2024ko lehenengo bederatzi hilabeteetan.

Bilakaera negatiboak


- Mundu mailako inportazioak % 5,33 murriztu dira. Aztertutako herrialdeen artetik, Italiaren kasuan jaitsi dira gehien inportazioak (-% 11,62).
- Honako hauek izan dira murrizketa handiena izan duten partidak:
 - Metala lantzeko makina-erremintak (-% 23,61). Italiak izan du jaitsiera handiena partida horretan.
 - Altzairu herdoilgaitzezko eta aleatuzko barrak eta profilak (-% 20,07). Turkiak izan du jaitsiera handiena partida horretan.
 - Altzairu arruntezko barrak eta profilak (-% 17,40). Turkiak izan du jaitsiera handiena partida horretan.
 - Produktu mineralak (-% 15,22). Italiak izan du jaitsiera handiena partida horretan.




Alemaniak erronka komertzialak ditu AEBrekin eta Txinarekin. Hori dela eta, ekonomia sortuberrietara gerturatzeko saiatzen ari da, hala nola Indiara eta Mercosurreko herrialdeetara




Indartu egin da Frantziaren autonomia komertziala eta diplomatikoa: Onartezina iruditzen zaio EB-Mercosur akordioa, EBren batasuna eskatu du eta Marokoko gobernuarekiko harremana indartu du




EB-Mercosur akordioaren aurkako jarrera berretsi du Italiak, eta plan estrategiko anbiziotsua sinatu du Indiarekin. Haren inportazioak % 12 baino gehiago jaitsi dira 2024ko lehenengo hiru hiruhilekoetan.



Poloniak tentsio komertzialak orekatu ditu Txinarekiko tren-konexioa bultzatuta, eta hango ibilgailu elektrikoen gaineko muga-zergak babestu ditu. EB-Mercosur akordioaren beste aurkarietako bat da




Starmarren gobernuak birdefinitu egin du Britainia Handiko kanpo-politika: Txinarekiko hurbiltze estrategikoa, aurreikusitako tentsioak AEBrekin eta EBrekin Merkataritza Akordio berri bat diseinatzeko bultzada





Turkiak atzerapenak ditu EBrekiko lehorreko garraioan, eta handitu egin da Txinarekiko tentsioa, ibilgailu elektrikoei jarritako muga-zergak direla eta. Trump berriro hautatu ostean muga-zergak murriztuko dituzten konfiantza du gobernauk



4.2

Amerika



Amerika

Inportazioak % 4 igo dira Amerikan 2024ko lehen bederatzi hilabeteetan. Ibilgailuen eta makina mekanikoen inportazioarekin lotutako partidak dira gehien igo direnak.

EAEko ESPORTAZIO PARTIDA NAGUSIEN INPORTAZIOAK					
PRODUKTUA*	BALIOA 2024ko 1HH-3HH (mila €)	2024 1HH-3HH VS 2023 1-3HH	PRODUKTUA	BALIOA 2024ko 1HH-3HH (mila €)	2024 1HH-3HH VS 2023 1-3HH
Guztira	2.857.007.243	% 4,06	Aluminioa eta manufakturak	24.707.529	-% 1,49
Elikadura-produktuak	67.758.035	% 8,27	Erremintak eta tresnak	10.109.120	% 3,09
Produktu mineralak	240.098.075	-% 3,75	Manufaktura metalikoak	13.983.528	% 7,32
Produktu kimikoak	331.928.407	% 7,26	Metala lantzeko makina-erremintak	6.010.999	-% 1,10
Kautxua eta manufakturak	33.078.825	% 3,70	Beste makina mekaniko batzuk	443.254.651	% 11,32
Pasta, papera eta horien manufakturak	28.782.109	% 5,95	Makina elektrikoak	381.936.680	% 2,85
Altzairu arruntezko barrak eta profilak	4.499.556	-% 0,19	Trenbideetarako ibilgailuak	3.131.618	-% 11,38
Altzairu herdoilgaitzezko eta aleatuzko barrak eta profilak	4.285.748	-% 11,63	Automobilak	186.043.213	% 9,00
Hodiak eta osagarriak	11.307.900	-% 23,70	Merkantziak garraiatzeko ibilgailuak	51.758.639	% 8,76
Burdinazko edo altzairuzko beste manufaktura batzuk	12.830.396	% 2,59	Ibilgailuen zatiak eta osagarriak	73.899.302	% 2,71

Legenda

Bilakaera positiboa (% 5<)

Garrantzirik gabeko bilakaera (-% 5 eta % 5 artean)

Bilakaera negatiboa. (-% 5>)

Bilakaera positiboak


- 2023ko datuekin alderatuta, inportazioen guztizko kopuruak % 4ko igoera izan du.
- Hauek izan dira igoera handiena izandako partidak:
 - Beste makina mekaniko batzuk (+% 11,32). AEB eta Brasil daude gorakada horren lehen postuetan.
 - Automobil-ibilgailuak (+% 9,00). Brasil dago gorakada horren lehen postuan
 - Merkantziak garraiatzeko ibilgailuak (+% 8,76). Brasil dago gorakada horren lehen postuan

Bilakaera negatiboak


- Honako hauek dira jaitsiera handiena izan duten partidak:
 - Hodiak eta osagarriak (-% 23,70). AEB eta Kanada daude jaitsiera horren lehen postuetan.
 - Altzairu herdoilgaitzezko eta aleazio-altzairuzko barrak eta profilak (-% 11,63). Brasil dago jaitsiera horren lehen postuan.
 - Trenbideetarako ibilgailuak (-% 11,38). AEB dago jaitsiera horren lehen postuan.



AEBk gerra komertziala areagotuko du Trump agintean denean eta horrek, akordio garrantzitsuei eragingo die, hala nola T-MEC akordioari, eta Txinarekiko eta Europar Batasunarekiko harremanak ezegonkortuko ditu




Kanadak Indonesiarekin akordio komertzial esanguratsuak sinatu ditu. Kanadako ekonomiak ziurgabetasunari aurre egin behar dio Trumpen politika protekzionisten aurrean, AEBekiko mendekotasun handia baitu.







Kolonbiak Txinarekin eta EBrekin dituen harremanak indartu nahi ditu, lankidetzak ekonomikoan eta komertzialean aurrera eginda. Kolonbiako gobernuaren eta Trumpen administrazioaren arteko desadostasun politikoak direla eta, ziurgabetasuna sortu da



Brasil izango da EB-Mercosur akordioaren onuradun nagusietako bat. Gainera, gobernuak Txinarekin dituen harremanak sendotu nahi ditu Trumpek ezar ditzakeen muga-zergen eraginei aurre egiteko





4.3

Asia, Ozeania eta Afrika

Asia eta Ozeania

Asiako eta Ozeaniako inportazioek ia ez dute aldaketarik izan (-% 0,63). Txina da makina mekanikoen eta aluminioaren inportazioan izandako gorakadetan liderra

EAEko ESPORTAZIO PARTIDA NAGUSIEN INPORTAZIOAK					
PRODUKTUA*	BALIOA 2024ko 1HH-3HH (mila €)	2024 1HH-3HH VS 2023 1-3HH	PRODUKTUA	BALIOA 2024ko 1HH-3HH (mila €)	2024 1HH-3HH VS 2023 1-3HH
Guztira	2.717.445.322	-% 0,61	Aluminioa eta manufakturak	21.899.701	% 11,10
Elikadura-produktuak	46.421.061	% 2,85	Erremintak eta tresnak	3.524.754	-% 0,64
Produktu mineralak	802.204.996	-% 1,80	Manufaktura metalikoak	2.762.097	% 0,06
Produktu kimikoak	204.049.828	-% 9,31	Metala lantzeko makina-erremintak	5.060.909	-% 11,35
Kautxua eta manufakturak	16.459.352	-% 0,25	Beste makina mekaniko batzuk	244.907.359	% 9,54
Pasta, papera eta horien manufakturak	27.514.354	-% 6,34	Makina elektrikoak	546.683.389	% 4,34
Altzairu arruntezko barrak eta profilak	1.704.947	-% 19,74	Trenbideetarako ibilgailuak	1.026.224	% 8,49
Altzairu herdoilgaitzezko eta aleatuzko barrak eta profilak	3.738.732	-% 6,76	Automobilak	45.867.088	-% 11,60
Hodiak eta osagarriak	3.176.873	-% 7,25	Merkantziak garraiatzeko ibilgailuak	1.526.543	-% 20,91
Burdinazko edo altzairuzko beste manufaktura batzuk	4.910.837	-% 3,45	Ibilgailuen zatiak eta osagarriak	24.353.002	-% 0,14

Legenda

Bilakaera positiboa (% 5<)

Garrantzirik gabeko bilakaera (-% 5 eta % 5 artean)

Bilakaera negatiboa. (-% 5>)

Bilakaera positiboak

- Hauek izan dira **igoera handiena** izandako partidak:
 - Aluminio eta haren manufakturak** (+% 11,10). Txina dago gorakada horren lehen postuan.
 - Beste makina mekaniko batzuk** (+% 9,54). Txina dago gorakada horren lehen postuan.
 - Makina elektrikoak** (+% 4,34). Txina dago gorakada horren lehen postuan.

Bilakaera negatiboak

- 2023ko datuekin alderatuta, inportazioen guztizko kopuruak **% 0,61eko jaitsiera** izan du.
- Hauek dira **jaitsiera handiena** izan duten partidak:
 - Merkantziak garraiatzeko ibilgailuak** (-% 20,91). Txina dago jaitsiera horren lehen postuan.
 - Altzairu arruntezko barrak eta profilak** (-% 19,74). Hego Korea dago jaitsiera horren lehen postuan.
 - Automobil-ibilgailuak** (-% 11,60). Hego Korea dago jaitsiera horren lehen postuan.

Afrika

Hegoafrikako, Marokoko eta Kenyako inportazioek 4,34 egin zuten behera 2024ko lehen sei hilekoan. Gehien jaitsi diren partidak automobil-ibilgailuenak eta ekipo-ondasun elektrikoenak dira.

EAEko ESPORTAZIO PARTIDA NAGUSIEN INPORTAZIOAK					
PRODUKTUA*	BALIOA 2024KO 1.SH* (milaka €)	2024KO 1. SH VS 2023KO 1. SH	PRODUKTUA	BALIOA 2024KO 1.SH* (milaka €)	2024 1. SH VS 2023 1. SH
Guztira	79.363.631	-% 4,34	Aluminioa eta manufakturak	722.319	-% 0,50
Elikadura-produktuak	2.377.983	-% 5,56	Erremintak eta tresnak	271.449	% 10,01
Produktu mineralak	15.302.495	-% 5,62	Manufaktura metalikoak	300.824	% 2,15
Produktu kimikoak	7.215.933	% 2,38	Metala lantzeko makina-erremintak	151.161	% 9,15
Kautxua eta manufakturak	1.010.840	-% 1,00	Beste makina mekaniko batzuk	8.725.574	-% 2,31
Pasta, papera eta horien manufakturak	1.555.888	-% 18,30	Beste ekipo-ondasun elektriko batzuk	7.828.347	-% 22,66
Altzairu arruntezko barrak eta profilak	276.496	% 49,08	Trenbideetarako ibilgailuak	117.521	% 44,66
Altzairu herdoilgaitzezko eta aleatuzko barrak eta profilak	72.404	% 6,81	Automobilak	2.546.491	-% 34,63
Hodiak eta osagarriak	266.413	-% 25,66	Merkantziak garraiatzeko ibilgailuak	708.416	-% 19,04
Burdinazko edo altzairuzko beste manufaktura batzuk	257.350	% 0,39	Ibilgailuen zatiak eta osagarriak	2.452.530	% 8,45

Legenda

Bilakaera positiboa (% 5<)

Garrantzirik gabeko bilakaera (-% 5 eta % 5 artean)

Bilakaera negatiboa. (-% 5>)

Bilakaera positiboak


- Hauek izan dira **igoera handiena** izandako partidak:
 - Altzairu arruntezko barrak eta profilak** (+% 49,08). Hegoafrika dago gorakada horren lehen postuan
 - Trenbideetarako ibilgailuak** (+% 44,66). Maroko dago gorakada horren lehen postuan.
 - Erremintak eta tresnak** (+% 10,01). Hegoafrika dago gorakada horren lehen postuan

Bilakaera negatiboak


- 2023ko datuekin alderatuta, **inportazioen guztizko kopuruak % 4,34ko jaitsiera** izan du.
- Hauek dira jaitsiera handiena izan duten partidak:
 - Automobil-ibilgailuak** (-% 34,63). Hegoafrika dago jaitsiera horren lehen postuan.
 - Hodiak eta osagarriak** (-% 25,66). Maroko dago jaitsiera horren lehen postuan.
 - Ondasun-ekipo elektrikoak** (-% 22,66). Kenya dago jaitsiera horren lehen postuan.




Muga-zergekin lotuta orain gutxi izandako gerra gurutzatuaren ondoren, Txina EBrekin duen harremana hobetu nahian ari da. Asiako herrialdearen botere handia dela eta, Estatu Batuen murrizketek izan dezaketen inpaktua ziurgabea da.



Indiaren eta Europaren arteko ALCen negoziazioak aurrera doaz pixkanaka. Aurreikuspenen arabera, Txinarekin eta AEBrekin dituzten harremanak hobetu egingo dira diplomazia-arazoak eta Trump berriro izendatu izanak sortutako arazoak konpondutakoan




EBk eta Japoniak elkarren arteko harremanak sendotzen jarraitzen dute berrikuntza eta inbertsioa sustatzea helburu duten ekimenekin. Azken urteotan oso harreman gutxi izan ostean, Txinarekiko harremanak berriro abiatu dira





Gerra-legea aplikatzeko porrot egindako saiakerak ondorio negatiboak izango ditu Hego Koreak mundu mailan duen ospean. Ibilgailu elektrikoekin lotuta Trumpek duen eszeptizismoa dela eta, airean dago 50 mila milioi dolar baino gehiagoko inbertsioa




EAEko ESPORTAZIO PARTIDA NAGUSIEN INPORTAZIOAK					
PRODUKTUA*	BALIOA 2024 1HH-3HH (mila €)	2024 1HH-3HH VS 2023 1-3HH	PRODUKTUA	BALIOA 2024ko 1HH-3HH (mila €)	2024 1HH-3HH VS 2023 1-3HH
Guztira	434.566.950	-% 2,79	Aluminioa eta manufakturak	5.997.219	% 3,52
Elikadura-produktuak	8.345.065	% 1,14	Erremintak eta tresnak	700.496	% 2,47
Produktu mineralak	128.121.544	-% 2,99	Manufaktura metalikoak	641.503	% 3,19
Produktu kimikoak	37.366.034	-% 16,16	Metala lantzeko makina-erremintak	605.015	-% 4,27
Kautxua eta manufakturak	2.057.933	% 1,64	Beste makina mekaniko batzuk	44.031.168	-% 0,08
Pasta, papera eta horien manufakturak	2.904.873	% 1,33	Makina elektrikoak	83.204.758	% 1,32
Altzairu arruntezko barrak eta profilak	1.043.324	-% 27,45	Trenbideetarako ibilgailuak	326.840	% 2,82
Altzairu herdoilgaitzezko eta aleatuzko barrak eta profilak	921.493	-% 21,14	Automobilak	8.998.798	-% 23,83
Hodiak eta osagarriak	931.659	-% 16,71	Merkantziak garraiatzeko ibilgailuak	514.953	% 10,61
Burdinazko edo altzairuzko beste manufaktura batzuk	1.787.444	-% 2,13	Ibilgailuen zatiak eta osagarriak	3.498.592	-% 8,41

PERSPEKTIBAK ETA BERRITASUNAK

- Ibilgailu elektrikoekin lotuta Trumpek duen eszeptizismoa dela eta, arriskuan dago Hego Koreako enpresek egindako 50 mila milioi dolar baino gehiagoko inbertsioa. Hego Koreako hainbat enpresa berriz aztertzen ari dira AEBn lantegiak eraikitzeko egindako 54 mila milioi dolarreko inbertsioa, Trumpek kreditu fiskalak kenduko ote dituen kezka dutelako.
- Hego Koreak mundu mailan duen eragina gutxitu egin da gerra-legea aplikatzeko egindako saiakerak porrot egin ostean. Lege hori ezartzeko saiakerak aurrera egin ez zuen arren, Australia, Japonia eta eskualdeko beste herrialde batzuekin herrialdea gero eta maizago izaten ari zen harreman estrategikoak hoztea eragingo duela espero da.
- Balizko gobernu berriaren aurrean EBk dituen aurreikuspenak Behin gobernu berria ezarrita, funtsezkoa izango da EBk administrazio berriari argi eta garbi helaraztea Errusiarekin, Txinarekin eta Ipar Korearekin lotutako mehatxu geopolitikoaren garrantzia.




EBk eta Australiak mineral kritikoen itun komertzialak sinatu dituzte eta bi aldeentzat izango dira mesedegarriak. Gerra komertziala izanez gero, Australia oso egoera ahulean geratuko litzateke Txinara egindako esportazioekiko mendekotasun handia duelako





Marokok EBrekin dituen harremanak ahuldu egin daitezke EBJAren epaiaren ondoren. Trumpek hauteskundeak irabazi izana albiste ona da Marokorentzat Mohammed VI.a erregearekin harreman ona duelako



A blue-tinted photograph of an airplane on a tarmac. The airplane's fuselage, wing, and tail are visible. A white geometric pattern, resembling a series of interlocking squares or a staircase, is overlaid on the right side of the image. The number '5' is displayed in a white box on the left side of the fuselage.

5

Eranskina

“Eskualdeko ikuspegia” ataleko herrialdeen araberrako fitxetan erabilitako sektore mailako sailkapenean jasotako TARICen kapituluak/posizioak

SEKTOREA	JASOTAKO KAPITULUAK/POSIZIOAK	SEKTOREA	JASOTAKO KAPITULUAK/POSIZIOAK
Guztira	Guztiak	Aluminioa eta manufakturak	76
Elikadura-produktuak	16, 17, 18, 19, 20, 21, 23, 24	Erremintak eta tresnak	82
Produktu mineralak	25, 26, 27	Manufaktura metalikoak	83
Produktu kimikoak	28, 29, 30, 31, 32, 33, 34, 35, 36, 37, 38	Metala lantzeko makina-erremintak	8456, 8457, 8458, 8459, 8460 8461, 8462, 8463
Kautxua eta manufakturak	40	Beste makina mekaniko batzuk	8413, 8414, 8415, 8419, 8420, 823, 8424, 8427, 8429, 8430, 8431,8432, 8433, 8434, 8435, 8436, 8438, 8439, 8440, 8441, 8442, 8443, 8444, 8445, 8446, 8454, 8455, 8464, 8465, 8466, 8467, 8468, 8469, 8470, 8471, 8472, 8473, 8474, 8475, 8476, 8477, 8478, 8479, 8480, 8481, 8482, 8483, 8484, 8485, 8486, 8487
Pasta, papera eta horien manufakturak	47, 48, 49	Makina elektrikoak	85
Altzairu arruntezko barrak eta profilak	7213, 7214, 7215, 7216, 7217	Trenbideetarako ibilgailuak	86
Altzairu herdoilgaitzezko eta aleatuzko barrak eta profilak	7219, 7220, 7225, 7226	Automobilak	8702, 8703
Hodiak eta osagarriak	7303, 7304, 7305, 7306, 7307	Merkantziak garraiatzeko ibilgailuak	8704, 8705
Burdinazko edo altzairuzko beste manufaktura batzuk	7301, 7302, 7321, 7322, 7323, 7324, 7325, 7326	Ibilgailuen zatiak eta osagarriak	8706, 8707, 8708



Urkixo zumarkalea, 36, 5. solairua. Bizkaia Plaza eraikina 48011
Bilbo info@basquetrade.eus
(+34) 94 403 71 60

basquetrade
.eus